

7. FUNTSEZKO BALIABIDEAK

KLIKASI plataformak bere balio-proposamena garatu, berezeroengana iritsi, haiekin harremanak mantendu eta diru-sarrerak sortu ahal izateko, hainbat funtsezko baliabide behar ditu. Baliabide hauek ukigarriak zein ukiezinak dira, eta proiektuaren arrakasta bermatzeko ezinbestekoak dira.

1. Baliabide fisikoak

KLIKASI plataforma digitala denez, baliabide fisiko nagusienak azpiegitura teknologikoekin lotuta daude. Horien artean internet zerbitzariak eta hodeiko biltegiatze-sistemak aurkitzen ditugu, plataforma martxan 24 orduz egon dadin laguntzen dutenak. Halaber, ordenagailuak eta beste gailu teknologikoak, sareko ekipamendu osagarriak bezala, hau da, routterrak edota segurtasun sistemak, beharrezkoak dira aplikazioa kudeatzeko, edukiak berrikusteko eta plataformaren funtzionamendua kontrolatzeko.

2. Baliabide intelektualak

Baliabide intelektualen barruan sartzen da KLIKASI plataformaren ideia bera, bere funtzionamendu-eredua eta garatutako softwarea. Era berean, markaren izena, irudia eta eduki digitalen egitura ere baliabide intelektual garrantzitsuak dira. Edukien egiaztapen-sistema, metodologia didaktikoak eta plataforma erabiltzeko diseinatutako prozesuak balio handiko aktibo ukiezinak dira.

3. Giza baliabideak

Giza baliabideak KLIKASI proiektuaren oinarrietako bat dira. Horien artean daude proiektua sortu eta kudeatzen duten kideak, teknologia-enpresetako profesionalak (garatzaileak eta segurtasun-arduradunak), irakasleak, orientatzaileak eta edukiak gainbegiratzen dituzten aditu akademikoak. Haien ezagutzak, esperientzia eta trebetasunak funtsezkoak dira plataformaren kalitatea eta erabilgarritasuna bermatzeko.

4. Finantza-baliabideak

Proiektua martxan jartzeko eta mantentzeko beharrezkoak dira finantza-baliabideak. Horien artean sartzen dira ikastetxeen harpidetzetatik lortutako diru-sarrerak, banaka ikasten duten ikasleen ordainketak eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza eta diru-laguntzak. Baliabide ekonomiko hauek aukera ematen dute plataforma garatzeko, mantentzeko eta etengabe hobetzeko.